BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2862

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 3koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, artzain txakurren 2013ko lehiaketa ofizialak finkatzekoa.

Artzain txakurren inguruan lehiaketa eta bestelako gertaerak antolatzen dituzten elkarteen erregistroa sortu, eta lehiaketa nahiz gertaera ofizialak aintzatesten dituen Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 1999ko abuztuaren 16ko Aginduaren 2. artikuluak xedatutakoarekin bat (1999ko abuztuaren 30eko EHAA, 165. zk.), eta aginduan eskatutakoak beteta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Artzain txakurren 2013ko lehiaketa ofizialak finkatzea, ebazpen honi atxikitako eranskinean azaltzen den moduan.

Bigarrena.– Bertako arrazen aleak, hau da, euskal artzain txakurrak, eta gure artaldeekin betidanik lan egin duten beste motatako txakurrak aurkeztu ahal izango dituzte.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 3a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

ERANSKINA

ARTZAIN TXAKURREN LEHIAKETA OFIZIALAK 2013. URTERAKO.

Lehiaketa	Eguna	Lekua	Elkarte antolatzailea
Arabako Artzain Txakurren Txapelketa	2013-08-31	Murgia	Arabako Artzain Txakurren aldeko Elkartea (ARATE)
Bizkaiko Artzain Txakurren Txapelketa	2013-09-08	Mungia	Bizkaiko Artzain Txakurren Elkartea (BATE)
Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketa	2013-09-01	Legazpi	Gipuzkoako Artzain Txakurraren Elkartea (GIATE)
Euskadiko Artzain Txakurren Txapelketa	2013-09-14	Atxondo	Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea
Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa	2013-09-22	Oñati	Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkartea